



Ikastolak duen funtzionamendua era laburrean **ezagutzeko asmoz**, ondorengo orrietan **pedagogi, antolaketa zein ekonomiari buruzko informazioa** azaltzen dizuegu, lagungarria izango zaizuelakoan:

- o **ordutegia**
- o **eskola kontseilua, afa eta gurasoen batzar nagusia**
- o **proiektuak**
- o **eskola osasuna**
- o **kuotak**

mailakako eskola ordutegia **Haur eta Lehen Hezkuntza**

| GOIZEZ | ARRATSALDEZ |
|----------------------------|----------------------|
| Sarrera 09:00-09:10 | Sarrera: 15:00-15:05 |
| Irteera: 12:30 | Irteera: 16:30 |
| Jolastordua 11:00-11:30 | |

*** 2 urteko** ikasleen ordutegia berezia da. Goizez sarrera malgua dute (abendura arte 9:00etatik 10:00ak arte eta urtarriletik aurrera 9:00etatik 9:30ak arte).

eskola kontseilua

Eskola Kontseilua eskola-elkarteko kideen partaidetza organoa da eta berari dagokio ikastolako egunerokotasunaren inguruko funtsezko erabakiak hartzea. Ikastolaren autonomiaren arloan ikastetxearen jardueraren erantzule nagusia da.

Bertan ikastolan hautaketa prozesuan aukeratuak izan diren estamentu guztietako ordezkariak daude; gurasoak, irakasleak eta ez-irakasleak.

afa

antolakuntza eta funtzionamendu arautegia

Ikastolaren arauak eta antolakuntza eta ikastetxea osatzen duten partaideen (ikasle, irakasle eta guraso) betebeharrak eta eskubideak jasotzen dituen dokumentua da.

Beraz, dokumentu hau oso zabala da eta bertan interesgarri edo beharrezkoa ikusten duguna sar dezakegu, beti ikastolaren funtzionamendua hobetzeko asmoz eta Eskola Kontseilukaren oniritziarekin.

Dokumentu hau ikastolako web gunean (www.intxixu-ikastola.net) eskura dezakezue.

gurasoen asanblada

Ikastetxe honetako ikasleen guraso edo tutore guztiak asanbladaren partaide dira. Asanblada derrigor urtean birritan batzen da: kurtso hasieran, lehengo hiru hilabetekoan, Eskola Kontseiluko gurasoek ikasturteroko planaz informatzeko, eta kurtso amaieran.

Bestaldetik, Eskola Kontseiluak honela eskatzen duenean ere batuko da, bai bere iritzia ezagutzeko bai edozein informazioa trukatzeko.

proiektuak

1.- Kalitate hezkuntzan proiektua:

Helburu nagusia: proiektu honen bidez irakaskuntza-ikaskuntza prozesua eta gure barne antolamendua etengabeko hobekuntza bidean sartzea.

2.- Euskara unibertsoan proiektua:

Ikastolako eremu guztietan euskara indarrez ezarri eta zabaltzeko plana da. Urtero aurrera pausu berriak emanez eta Deustu eta San Inazioko ikastetxeekin koordinatuz.

Helburu nagusia: Euskarak Ikastolako eremu guztietan behar duen ezarpena bermatzea eta zabalduz joateko bultzatzea.

3.- Hizkuntzen trataera bateratua:

Ingelesa 4 urtekoen gelan asteen 3 saio sartu eta 6. mailara arte hedatzen da. Metodologiaren oinarria arlo guztiak biltzen dituen edukiak landuz aritzea da. Hiru hizkuntzak lantzeko metodologiarik eragingarrienak bilatzen gabilta etengabe.

Helburu nagusia: Lehen Hezkuntza bukatutakoan Euskaraz eta gazteleraz konpetentzia egokia izatea eta ingelesarekiko adierazpen eta ulermen maila egokia lortzea.

4.- Agenda 21:

Udala eta CEIDA ingurugiro hezkuntzarako zentroarekin koordinaturik osatzen den plana jarraituz, epeka eta ardatz ezberdinetan ingurumenaren gaia ikuspegi jasangarritik lantzen du. Hau da; baratza, birziklapena, orubea eta zarataren ardatzetan ekintza ezberdinak landuz. AGENDA 21 delako proiektuan parte hartzen dugu eta bertan guneko beste ikastetxe eta Bilboko udalarekin aldaketa klimatikoa gaitzat hartuta lan egiten dugu.

Helburu nagusia: Umeak ingurugiro gaietan kontzientziaztea eta apurka-apurka Ikastola guneko ekologikoa bihurtzea, ikasle zein irakasle eta gurasoak dinamika jasangarrian bilduz.

5.- Jolasaldietan elkarbizitza hobetuz:

Helburu nagusiak:

- Jolasaldietan jolas ezberdinetan parte hartzeko aukera zabala ematea
- Euskararen erabilpena indartzea
- Jolas ezberdinen arauak ezagutu eta errespetatzea
- Ohituraz jolasten ez denarekin harremanatzea
- Bazterturik egon daitezkeenak taldean integratzea

eskola osasuna

Udaleko Eskola Osasun Taldeak egitarau zehatz bat betetzen du ikasturtean zehar (azterketa medikoak, txertaketak, jantokiaren kontrola...). Horretarako, asteazken eta ostegunero erizaina eta medikua ikastolan aritzen dira.

ikasleen istripu-asegurua

Ikasleei aseguruua egitearen erabakia gurasoen asanbladan hartutakoa da. Oso eroso suertatzen delako bai gurasoentzat zein ikastetxearentzat.

Hau dela eta, ikasleren batek istripu arina jasaterakoan (okerdurak, zauriak, puntuak...) irakasleak aseguruari parte eman eta azken honek medikua bidaltzen du ikastetxean bertan arreta eman ahal izateko. Hau gertatzen denean gurasoak deitzen ditugu.

Inoiz, zaurituak lekualdatzea behar baldin badu (erradiografia bat egin behar diotelako, adibidez), ambulanzia bat ikastetxera dator eta eraman egiten du dagokigun klinikara.

Hala ere, istripua larria balitz zuzenean Basurto edo Gurutzetara eramango genuke umea, baina esperientziaz badakigu suertatzen diren istripu gehienak oso arinak izaten direla eta ikastetxean bertan edo aseguruak proposatutako klinikan arreta eskain dakiekeela.

kuotak

1.-material suntsigarriagatiko kuota:

3 urtetik 6.mailako ikasleei pasatzen zaie.

Gurasoen asanbladak erabakita, kuota honetan ikastetxetik ikasleek erabiliko duten material suntsigarria, autobusak, folioak, fotokopiak irteera didaktikoak eta bestelako gastuak sartzen dira, lehen aipatutako ikasleen artean batz bestekoa egiten dugularik.

Ikasturtero gurasoen lehen asanbladan aurreko ikasturteko kontuekin batera, ikasturteko aurrekontua aurkeztu eta gurasoek onartu egin behar dute. Onartutakoan, zenbatekoa ikasleen artean banatzen da. Hemendik URTEKO KUOTA ateratzen da.

Zenbateko hau hiru zatitan banatzen da, bakoitza hiruhilabete batetan pasatzen delarik:

- Lehena AZAROAN: 19€
- Bigarrena OTSAILAN: 19€
- Hirugarrena MAIATZEAN: 19€? (Aurrekontu bat den neurrian, azken zenbatekoa alda daiteke, hala ere, kuota honen irizpidea mozkinak ez sortzea da)

2.- 2 urteko kuota eta gordailua

2 urteko ikasleei, soilik, zuzenduta.

2 urteko gelak ireki zirenean, laguntzaileen beharrak betetzeko sortua izan zen. Kuota honekin dauzkagun bi laguntzaileen soldatak eta gizarte-segurantza, (28 ikasle edo gehiago daudenean bi teknikari kontratatzen dira), istripu aseguru eta material suntsigarrien (margoak, plastilina, papera, fotokopiak...) gastuak betetzen dira.

Kuota honen zenbatekoa (10 hilerokoetan, irailtik ekainera) urtero berrikusten da ikasle kopuruaren arabera (2009-2010 ikasturtean 52€ izan da).

Iraileko kuotarekin batera 60€-ko gordailua pasatzen da, 3 urteko gelan gelditzen direnei itzuliko zaielarik.

3.- guraso elkarteko urteko kuota

Ikastolako ikasle GUZTIEI pasatzen zaie (2 urtetik 6.mailara): 10€

Kuota hau eskolaz kanpoko ekintzak antolatu, ikastolarekiko jaia edota ekintzak eratu (Olentzero, aratusteak, kurtso amaierako jaia) eta guztion ongizaterako material erosketarako erabiltzen da, besteak beste.

4.- eskolaz kanpoko ekintzak: hileko kuota

Eskolaz kanpoko ekintzak egiten dituzten ikasleei zuzenduta (3 urtetik aurrerakoentzat)

Hileko kuota ekintzen kopurua eta ekintza bakoitzaren balioaren arabera da.

5.- jantokiko kuota

Jantokia erabiltzen dutenei zuzenduta.

Jantokia bi eratan erabil daiteke: Ohiko jankide gisa, astean 4 edo 5 egunetan gelditzen, eguna **3,60€** ordainduz. Egun soltetan, ez-ohiko bazkalkide gisa, eguneko **4,20€** ordainduz.

Janariaren prezioa eusko Jaurlaritzan ipintzen du ikasturtero. Bestaldetik Eusko Jaurlaritzak eta Udaletxea bere ikuskapenez: janariaren kalitatea, instalazioen egoera, higiene neurriak...

Medikuaren txostenek horrela agintzen badute, menu bereziak eskatzeko aukera ere badago.

6.- goizeko zaintza

8:15etik 9:00etara

Ume kopuruaren arabera zehazten da ordaindu beharreko kuota, aurten 35€ ordaindu da.